


Antzerkia ikas bidaia finantzatzeko

Anaitasunako ikasleek, martxoaren 24an estreinatu zuten barietate ikuskizuna. Antzerkia eginez, musika joz eta irakurriz, ikas bidaiarako dirua atzeratzea izan da helburu nagusia. 38 ikaslek hartu zuten parte. Ordu bete t'erdiko iraupena izan zuen ikuskizuna Alain Dominguezek zuzendu du.



Martxoaren 12an egin genuen hitzordua Ermua Zinemak, ikuskizuna estreinatu baino bi aste lehenago. Inprobisazio ariketa lantzen harrapatu genituen Anaitasuna Ikastola Institutuko ikasleak, antzerkia egin zuen taldea hain zuzen ere. Alain Dominguezen esanetan, *"lotsa galtzeko da match de improvisación ariketa. Izan ere, pausu hori ematea falta zaie, barregarri geratzeari beldurra kentzea hain zuzen ere"*.

Ideiaaren garapena

laz Ongarai Eskolakoek horrelako ikuskizun bat prestatu zuten, ikas bidaiarako dirua ateratzeko; Anaitasuna Ikas-

tola Institutuko ikasle batzuk ikustera joan ziren eta eurentzat ere baliagarria zela pentsatu zuten. Ikusi eta egin: *"Kontua zen, zerbait egiteko ideia bageneukala, baina zer egin zehazki ez genekiela. Orduan, gutariko baten bitartez Alaineekin jarri ginen harremanetan eta zuzendari lana proposatu genion"*, adierazi zuten ikasleek. Alaine gustu handiz hartu zuen zuzendari lana, *"niri eskatu zidaten zerbait egiteko. Ideia ezberdinak atera ziren: modelo pasea, play-back, antzerkia, musika jotzea... Orduan, ideia horiekin guztiekin ikuskizun bat egitea erabaki genuen eta emaitza polita izan da zalantzarik gabe"*, azpimarratu zuen zuzendariak.

Umeak ikuskizunaren protagonista

Ikuspenak zati ezberdinak izan zituen, baina guztiak ideia nagusi baten inguruan antolatuta. Lehenengo play-back-a, ondoren modelo pase bat, musikariak, irakurketa bat eta antzerki lan bat. Guztia bi aurkezlek gidatua. Gai nagusia ume eta nerabeak izan ziren eta beraiegan pobreziak, marjinazioak, tratu txarrekin duten eragina, nola bizi duten hori beraiek orokorrean, *"azken finean ikuspegi kritikoa landu nahi izan dugu ikuskizunean"*, adierazi zuen Alain Dominguezek.

Esperientzia aberasgarria

Ikasleak gustura aritu dira

ikuskizuna prestatzen, nahiz eta *"hasieran apur bat zaila egiten zitzaigun, lotsa ematen zigun..."*, aitortu zuten. Batek baino gehiagok gogoia ere badauka aurrerantzean antzerkigintzan aritzeko, gehienentzat esperientzia oso ona, dibertigarria eta aberasgarria izan delako: *"Jende aurrean hitz egiten, gure artean lotsa galtzen, antzerkia ez dela bakarrik gidoia ikasi eta nondik nora mugitu behar zaren jakitea, zerbait gehiago ere badela eta gu txirekin asko lortu daitekeela"*, ikasi dute denbora tarte honetan ikasleek. Zuzendariak ere ez dauka zalantzarik oso esperientzia aberasgarria izan dela baieztatzeko orduan.

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO

ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK


Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

Hamburguesería

TITANIC



Kantabria 2
Tlf. 17 67 83